



EUSKALITen LAGUNTZAILEAK

EUSKALITEKO LAGUNTZAILEA IZANIK HONETAN LAGUNTZEN DUZU:

- **Herrialdea garatzen** Kudeaketa Aurreratuaren zabalkundea eginez eta sektore guztien lehiakortasun iraunkorrean eraginez. Dagoeneko **800** erakunde laguntzaile baino gehiago gara, eta gure Ebaluazio Klubean **1.500** zuzendari eta teknikari baino gehiago daude, kudeaketari buruz duten ezagutza modu altruistan eskainiz **500** erakunderi baino gehiagori. Erakunde horiek diagnostikoak, edo Kudeaketa Aurreratuari Euskal Sarirako kanpo ebaluazioa jaso dezakete adibidez.
- **Ikaskuntza-foroak** erraztea, hala nola, Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astea, jardunbide egokiak trukatzeko komunitateak, 5S Kluba, Jardunbide Egokien Bilatzaileak edo Kudeaketaren Behatokia.
- **Kudeaketa aurreratu**ko tresnak ezartzea euskal erakundeetan, sektorekako laguntza-programen eta KnowInn metodologiaren bidez. **1.000 pertsona baino gehiago** trebatzen dira urtero metodologia horrekin.

Horrek guztiak aukera ematen die euskal erakundeei hobetzen jarraitzeko eta lehiakortasuna, produktibitatea eta iraunkortasuna handitzeko.

IBILBIDE- ORRIA: KUDEAKETA AURRERATU- RANTZ

Eta, laguntzeaz gain, nire erakundeak Kudeaketa Aurreraturantzko bideari ekin nahi badio, zer egin behar du? Zein dira egin beharreko urratsak?

01

Bidean hasteko, zure erakundearen abiapuntua ezagutu behar da. Gomendagarriena da zure kudeaketa sistemaren kanpo kontraste batekin hastea. Ekarpen horrek lagunduko dizu indarguneak ezagutzen eta sendotzen, hobetzeko arlo nagusiak lehenestez eta lantzeaz gain.

Kudeaketaren diagnostikoa

- **Kanpo kontrastea** (laguntzaileentzat bakarrik)
- **Kanpo ebaluazioa** (laguntzaileentzat bakarrik)

02

Indarguneak eta hobekuntza arlo nagusiak identifikatu eta gero, zure kudeaketa sistema garatzen hasi ahal izango zara, kudeaketarako tresnak ikasiz, ezarri eta emaitzak hobetuz.



Ikaskuntza eta ezarpena

- **Oinarrizko prestakuntza, Innobideak-Prestakuntza**
- **KnowInn-Kudeaketa metodologiaren prestakuntza eta ezarpena** (deskontuak laguntzaileentzat)
- **"In company" programak** (baldintza bereziak laguntzaileentzat)
- Esperientziak trukatzeko eta ikaskuntza partekatuko foroak
- **Ebaluazio kluba**

03

Hobetzen jarraitu EUSKALITeko beste zerbitzu batzuei esker:

- **5S Kluba** (laguntzaileentzat bakarrik)
- **Adierazleen sortak** (laguntzaileentzat bakarrik)
- **Jardunbide egokien Bilatzailea**
- Dokumentazio eskusiboak

04

Sendotzea. Zure kudeaketa sistemaren hobekuntzari buruzko diagnostiko berri bat egin, aurrerapenak ikusteko, eta aintzatespen bat lortu ahal izateko.

Aintzatespenak

- **Kudeaketa Aurreratuari Euskal Saria**

EUSKALITEKO ZERBITZUAK ETA LAGUNTZAILE IZATEAREN ABANTAILAK

Kudeaketaren diagnostikoak

EUSKALITEko diagnostikoak gure **Ebaluazio Klubeko** adituek egiten dituzte; modu altruistan jarduten dute EUSKALITEkin lankidetzan, euskal enpresei lehiakorragoak eta eraginkorragoak izaten lagunduz, Kudeaketa Aurreratuko metodologiei eta tresnei duten ezagutza ekarriz, eta ebaluazioetan eta beste diagnostiko batzuetan duten esperientzia eskainiz.

Kanpo kontrastea

- Enpresak bere kudeaketa sistemaren gaineko autoebaluazio bat egin behar du, **Kudeaketa Aurreratuaren Ereduari** jarraituz.
- Kudeaketa orokorrari edo elementu jakin batzuei buruz izan daiteke.
- Aurrerapen mailaren arabera, aukera dago **Kudeaketa Aurreratuaren Diploma** eskuratzeko.



Kanpo ebaluazioa

- Onura nagusia ebaluazio taldeak ematen duen **txostena** da. Txosten horrek

erakunde baten kudeaketaren aurrerapen maila ezagutzea ahalbidetzen du, kanpoko ikuspuntu batetik, baita indarguneak eta hobetzeko arloak ere.

- Erakundeko pertsonentzat, euren kudeaketa eredua osatzen duten kudeaketako praktikei buruz hausnarketa egiteko aukera bat da.
- Gainera, **Kudeaketa Aurreratuko Euskal Sariaren aintzatespenak** lortzeko bidea da. Eusko Jaurlaritzaren sari horrek erakundeko pertsona guztiek Kudeaketa Aurreratuaren bidean egindako ahalegina aitortzen du.



Diploma Gestión
Avanzada



A de Bronce



A de Plata



A de Oro

Metodologiaren prestakuntza eta ezarpena

KnowInn

EUSKALITEk garatu duen metodologia da, eta bere oinarrian daude autoikasuntza, praktikan jartzea eta esperientziak trukatzeko, eta **azken helburua da, kudeaketako tresnariak aurreratuak aplikatzeko**, erakundeak eraginkorragoak eta lehiakorragoak izan daitezen.

KnowInn programak **30 modulu independente** baino gehiago eskaintzen ditu kudeaketako metodologia ugariri buruz ikasteko eta ezartzeko.

Gainera, prestakuntza hori "in company" egiteko aukera dago, erakunde bakoitzaren beharretara egokitutako formatuetan.

Jardunbide egokien elkartrukea

5S Kluba

Gutxienez arlo pilotu batean 5Sak ezarri dituzten erakundeen arteko ikaskuntza-foroa da. Bere asmoa elkarrekin aurrera egitea da, Klubeko gainerako kideen

esperientziak partekatuz eta horietatik ikasiz, eta urtero hainbat jarduera egingen dira, hala nola, enpresetara bisitak, ezarpenen auditoriak, jardunbide egokiak trukatzeko jardunaldiak eta tailerrak.



Informazio gehiago lortzeko edo zerbitzu horiek eskatzeko, bisitatu www.euskalit.net edo deitu 94 420 98 55 zenbakira.

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA